



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KLARINETEA 2023-03-06

Nori zuzenduak?

Graduko **Klarinete interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 27an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Klarinete interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ESTELLÉS, José Luis

Sergio Barranco (Orkestra errepertorioa) eta Amaia Cipitria-ren (Errepertorioa pianistarekin) parte-hartzearekin

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-14:30 Parte hartzaile aktiboei eskolak José Luis Estellés eta Amaia Zipitria irakaslen eskutik

14:30 Bazkaria

15:30-18:30 Musikeneko ikasleei eskolak José Luis Estellés irakaslaren eskutik

13:00-14:00 / 15:30-18:30 Orkestra Errepertorio eskolak (ikasle aktiboen parte-hartzearekin) Sergio Barranco irakaslearen eskutik (ordu beteko 4 talde)

18:30-20:00 Musikeneko klarinete ikasleen emanaldia

Klarinete jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net